

IRRINTZINA BAT MENDIAN



SEMPEREKO BESTETAN LEEN GARAIT SARIA

AIREA: «*Sor lekua utziz geroz ondikotz*»

Gau eder batek ninduen atzeman mendi gainetan:
Iguzkia aintzinean emeki etzan zitzautan;
Azken abereak etchera zoazin ene oinetan,
Bazterrak inarrosiz beren joare-soinu ederretan.

Leen izarrak doidoia ziren orduan agertzen,
Arrabots guziak ere asiak ziren eztitzen,
Gaua, ura ere, ari zen kapa beltzaren edatzen,
Bitartean etche batzu oraiño ikus zitezken.

Or, sumatzen dut artzain bat mendi artetarik kantuz
Zakizkan eskualdun aire zaarrak charamelatuz,
Botz ura bakarrik orduan mendi gain etan adituz
Bea nindagon lorietan eta burua zutituz.

Bat-batean, kantu orde, oi u latz bat dut aditzen
Bere samintasunean ninduelarik arritzen;
Mendiko arroka zaarrak zituen bortizki ioiten
Eta leku basa etako oiarzunak iratzartzen.

Oiu gora, garratza zen nola emaztearena,
Azkarra eta bortitza nola gizonkiarena,
Artetarik iduri zuen basa iizi batena,
Zertan edo artan argatik oraino iendearena.

Luzaz zuen inarrosi mendi etako bortua,
Iduri zuen astean norbait zela minartua,
Irri lotsagarri batean zen aldiz akabatua,
Bide chendran nindagolarik uraino ni baratua.

Ibañetan ere, leen, irrintsina aditu zen
Arrolani zitzaiola odol guzia gatzatzen,
Alferretan ditu mendiak deiadarrez dardaratzen
Eskualdunen irrintzineak du ichiltzera bortchatzen.

Gogoetan nintzalarik, osoki zen ilundua,
Zerua zuten izarrek mila itzez itzatua,
Bortuan aldiz irrintzina aspaldi zen ichildua,
Aranean lanoez zuten asia beren gudua.

Azken aldikotz beatu nituen bortu ilunak:
Iduriz, orduan zautan iardesten oiarzunak:
—«Mendian entzunen direno oin ederki irrintzinak
»Ez beldurrik izan galtzera doazila Eskualdunak!»

BARBIER,
de Saint-Jean-Pied-de-Port.

